

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Suhiltzaile-taldeak geolokalizatuta egongo dira, unean-unean non dauden jakiteko eta segurtasuna hobetzeko

*NLA hasi da sistema hori ezartzen, suteak itzaltzeko eta salbamenduko baliabideak errazago koordinatze aldera*

Lunes, 12 de agosto de 2013

Nafarroako Gobernua Nafarroako Larrialdi Agentziako suhiltzaile-taldeak geolokalizatzeo ekipamendua hornitzen eta instalatzen hasi da, ezbehar handietan suteak itzaltzeko edo salbamenduko lanak egiten dituztenerako.

Hala, lanen koordinatzaileak baliabide materialak eta giza baliabideak non dauden eta zer bide egiten duten jakingo dute. Era horretan, lanak errazago zuzenduko dituzte eta suhiltzaileek seguruago lan egingo dute, haiei laguntzeko edo babesa emateko prozesuak arinduko direlako.

Horretarako, 112-SOS Nafarroa zerbitzuaren Larrialdiak Gestionatzeko Zentroan instalatuta dagoen aplikazio informatikoaren bertsio bat erabiltzen da; aplikazio horrek balio du ezbeharren kokalekua eta Nafarroako Larrialdi Agentziak mobilizatzen dituen bitartekoen kokapena eta desplazamendua zehazteko.

Gaur egun, basoetako suteak itzaltzeko jartzen diren baliabideek funtzionalitate hori aktibatuta daukate irrati-sistemetan, eta ordenagailu eramangarria medio koordinatu dezakete lanen arduradunak, Aginte Postu Aurreratuko taldeek, hamabi suhiltzaile-parkeek eta 112-SOS Nafarroako Larrialdiak Gestionatzeko Zentroak.

Suhiltzaile-taldeek eramaten dituzten tetra irrati-ekipoak eguneratzen direnean (denek ez daukate GPS gailua egokitzeko aukera), Nafarroako Larrialdi Agentziak suteak itzaltzeko eta salbamendurako jartzen dituen bitarteko guztiak geolokalizatzeo moduan egongo dira.



Landaretza-sute bat itzaltzeko lanen artxiboirudia.